# AGINTARIAK ETA LANGILEAK

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 4616

*1933/2025 EBAZPENA, urriaren 7koa, Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Ana Isabel Ruiz de Austri Troya andrea kentzen baita Arabako Unibertsitate Ospitaleko Erradiologiako gainbegiralearen kargutik, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan.*

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen martxoaren 31ko 1200/2022 Ebazpenaren bidez, Ana Isabel Ruiz de Austri Troya andrea izendatu zen Arabako Unibertsitate Ospitaleko Erradiologiako gainbegirale, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan (2022ko maiatzaren 16ko EHAA, 93. zk.).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ana Isabel Ruiz de Austri Troya andrea kentzea Arabako Unibertsitate Ospitaleko Erradiologiako gainbegiralearen kargutik, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko urriaren 10eko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Arabako Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 7a.

Arabako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentea,
ENRIQUE MANUEL BÁREZ HERNÁNDEZ.